Elkartearen estatutuekin bat bazkide izan daiteke, alde batetik, erakunde beraren xedeak bete nahi dituen eta, beste alde batetik, hurrengo baldintzetako bat betetzen duen edozein izaerako pertsona:

- Adin-nagusikoa edota adin-txikiko emantzipatua izateaz gain eskubideren baten egikaritzarako inolako legezko baldintzari loturik ez egotea ezta inolako ebazpen judizial irmoren arabera gaitasuna mugatua izatea ere.
- Emantzipaturik ez dagoen adin-txikikoaren kasuan, hamalau urte baino gehiago izatea eta bere gaitasun-eza ordezkatu behar duten pertsonen agiri akreditatu bidezko adostasuna izatea.
- Tutoretza- edota kuratoretza-pean daudenen gaitasun-gabezia osatu edo ordezkatu behar duten pertsonen agiri akreditatu bidezko adostasuna beharrezkoa da, ezin izango dira ez gobernu-organuaren kide ezta elkartearen ordezkari izan ere.

2015ko abenduaren 31ean Retinosis Gipuzkoa Begisarek 211 bazkide ditu, berauetako 116 emakumezkoak dira eta gainerako 95ak gizonezkoak.

4.- JARDUEREN MEMORIA ETA ERAKUNDEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK, BAITA BERAUEN ONURADUNAK ERE

Horrela, elkarteak burutzen dituen ihardueren onuradun izango dira bai Erretinosi Pigmentarioaren gaixotasunak eragindako guztiak eta beraien senideak, baita gaitz honekin harremana duten zientziaren edozein arlotako profesionalak ere. Era berean, "Ikusmen Murriztua Dut" deritzon bereizgarriaren inguruko proiektuari esker onuradun-kopurua nabarmen areagotzen da, izan ere, ikusmen murriztuaren sentsibilizazioak berau pairatzen duten gizon-emakume guztiak onuratsen ditu zuzenean, gutxi gora-behera biztanleriaren %2a hain zuzen ere.

Iharduera gehienek duten onuradunen kolektiboa erabat zabala eta zehazgabea da, izan ere, gaitzaren dibulgazioa, bere zailtasunak, bere beharrak, ematen ari diren aurrerakuntzak, eragindakoek dituzten baliabideak etabar, Retinosis Gipuzkoa-ko bazkide diren edo ez aintzat hartu barik, era guztietako eragindako pertsona, gaixo, senide eta gainerakoak onuratsen dituzten egintzak dira.

Era berean, pertsona kopuru ahalik eta zabalenera iristeko asmoz beste elkarteekin hartu-eman franko izaten, gaixotasunaren sentsibilizazioaren inguruko ihardunaldiak ospatzen, paper eta bideo formatuan edizioak argitaratzen, hitzaldiak etabar antolatzen ditugu.

Jarraian 2015 urtean zehar gauzaturiko programak, hauek osatzen dituzten jarduerak eta berauetako bakoitzaren onuradunak zehazten dira:

4.1.- 1. PROGRAMA: ELKARTEGINTZA

2015 urtean zehar erretinako distrofiak pairatzen dituzten pertsonen eta beraien senitartekoen bizi-kalitatea hobetzea helburu duten saio eta jarduera ugari antolatu ditugu. Zehazki:

- Erretinosi Pigmentarioak eragindako baita beraien senideek ere izan ditzaketen informazio-, aholku- eta babes-beharrei emaniko arreta osoa. Honetaz baliatuz, Erretinosi Pigmentarioak eragindako ikusmen-urritasunak dituzten pertsonen desberdintasunak gainditzeko, bazterketa-egoerak ekiditea sustatzen, autonomia pertsonala garatzen, beraien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea dugu helburu. Horretarako, 3 alorretan aritu gara lanean: pertsona eta/edo familiari emaniko arreta eta babesa; taldeka emandako arreta eta erkidegoari eskainiriko arreta. Pasaden maiatzaz gero Donostia Ospitalean beste hainbat elkarterekin partekatzen dugun guneak erretinako distrofiak dituzten pertsonak hobeto atenditu ez ezik, adituengandik gertuago egoteko aukera eskaintzen digu. Besteak beste, Erretinosi Pigmentarioaren inguruan BioDonostia Institutua burutzen ari den ikerketa-proiektuaren alor klinikoaz arduratzen den Cristina Irigoyen Doktoarekin egoteko aukera dugu.

Arrazoi bat edo beste bategatik orain arte geure elkartera gerturatu ez ziren eta erretinako distrofiak dituzten pertsona asko dago. Beraien errebisioak pasatzen dituzten kontsultetatik gertu egotea eta, batik bat, Irigoyen Doktoarearekin buruturiko koordinaketa-lana funtsezkoa suertatzen ari da gizon-emakume hauek bizi-kalitate hobea izaten lagun diezaieketen baliabideak izaterako orduan, izan ere, kasu askotan pairatzen duten urritasunari loturiko zenbait alor garrantzitsuren inguruan informazio-gabezia izaten dute.

Onuradunak: era zuzenean, bazkide izan edo ez, erretinako distrofiak dituzten pertsonak baita beraien senideak ere. Eta zeharka bada ere gizartea, izan ere, diagnostiko genetiko zehatz batek gaixotasuna hurrengo belaunaldietara ez transmititzea ahalbidetuko luke eta, hortaz, gizartetik desagertzea.

- Erakunde eta enpresa desberdinekin eta Erretinosi Pigmentarioaren ezagutza hedatzeko xedearekin bilera ugari antolatu ditugu.
Onuradunak: gizartea orokorrean.

- Retina Asturias, Retina Navarra eta FARPE -Espainiako Erretinosi Pigmentarioaren Elkarleen Federakuntza- bezala, Erretinosi Pigmentarioaren inguruan lanean diharduten hainbat elkarterekin elkarlanean aritu gara.

Onuradunak: zuzenean Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta euren inguruko senide eta lagunak, baita gaitzaren inguruan lan egiten duten adituak ere. Zeharka gizarte osoa, izan ere, elkarlanean zenbat eta lan gehiago egin eta gehiago ikertu, are eta azkarrago iritsiko dira aurrerapausuak eta lehenago erauziko da gaixotasuna.

- Urritasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten bestelako elkarrekin amankomunean ditugun proiektuetan elkarlanean aritu gara. Besteak beste, Retinosis Gipuzkoa Begisarek abian jarri eta bere bidea daraman "Ikusmen Murriztua Dut" proiektuan ikusmen-urritasunak dituzten pertsonen elkarte baita ikusmen murriztuarekin loturiko erakunde eta enpresa ugarirekin lanean dihardugu.

- Onuradunak: era zuzenean ikusmen murriztua duten pertsonak (gutxi gora-behera biztanlegoaren %2a) eta, zeharka bada ere, gizartea orokorrean.

- Adituekin (oftalmologo, medikuntzako beste hainbat aditu, ikusmen murriztuan espezializaturiko optometristak, ikerlariak, genetistak, abokatuak, eta abar) hartu-emana eta hainbat proiektu ditugu amankomunean.

Onuradunak: bazkide izan edo ez, Erretinosi Pigmentarioa eta erretinako bestelako gaitzek eragindako pertsonak eta beraien familia eta lagunak, baita, Retinosis Gipuzkoa Begisare ardatz izanik, Erretinosi Pigmentarioarekin loturiko arlo ezberdinetan aritzen diren adituak ere. Eta zeharka bada ere gizartea, izan ere, informatu eta aholkua eman diezaieketen adituez inguraturik baldin badaude Retinosis Gipuzkoa bezalako elkarreak, hauek egoera hobeto batean egongo dira gaixotasunaren balizko eramaile direnei aholku eman eta, horrela, bere

ondorengoek gaitza pairatu edota eramatea sahiesteko neurriak hartzeko.

- Desgaitasunak dituzten pertsonak biltzen dituzten elkarte ezberdinek antolaturiko ekitaldietan parte hartu dugu. 2015 urtean zehar hurrengo jardunaldiak nabarmen daitezke: egiletza-eskubideak elkarteari emaniko “Blus en Cauterets” eleberriaren aurkezpena (Donostian, 2015eko otsailaren 11ean); “Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna” zela-eta, FEDERek antolaturiko prentsaurrekoa (2015eko otsailaren 25ean); gaixotasun arraroen aldeko pintxo eta txakolin solidarioa (2015eko martxoaren 6ean); “ONCE Euskadiren XI. Sariaren Banaketa” (2015eko ekainaren 10ean); FEDERek Gipuzkoako elkarteen eskura jartzen duen psikologoaren aurkezpena; RETAbet.es GBC – Sevilla saskibaloia partidua (2015eko azaroaren 29an); Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko “Solidaritate Sariaren Banaketa” (2015eko abenduaren 4ean); eta, Santa Luzia egunaren ildora ONCEk antolaturiko bazkaria (2015eko abenduaren 12an).

Onuradunak: gizartea orokorrean.

- Oro har, elkartearen kudeaketa hobetzearren bolondresen prestakuntza ardatz duten ikastaro eta hitzaldietan parte hartu dugu. Hain zuzen ere, 2015 urtean zehar hurrengo 2 lan-saioetan parte hartu dugu: Komunikazio ikastaroa, nola egin elkarrizketa bat? (2015eko azaroaren 24ean); eta, teknologia irisgarrien inguruko ikastaroa (2015eko abenduaren 10ean).

Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta beraien gertukoak baita gizartea orokorrean, izan ere, elkartearen kudeaketa hobetuz guztiantzat onuragarria suertatzen da.

- Edozein elkarteren kudeaketak galdatzen dituen berezko jardueren egikaritzea, besteak beste egintza-plana edo ihardueren memoriaren prestaketa, diru-laguntzen eskakizun-orriak, kontabilitatea, akten egikaritzea, datu-baseen eguneratzea, eta abar.

Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere hurbileneakoak era zuzen batean eta zeharka, berriz, gizartea, izan ere, Gipuzkoak Erretinosi Pigmentarioaren inguruan Retinosis Gipuzkoa bezalako elkarte bat izatea denontzat onuragarria baita.

4.2.- 2. PROGRAMA: KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

Erretinosi Pigmentarioa duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin lanean dihardugun alorrak dira, besteak beste, gaixotasuna eta bere sintomak ezagutara ematea, ikusmen-urritasunak berezko dituen zailtasunen inguruan gizarte orokorra sentsibilizatzea eta amesten dugun sendabidea erdiesteko lanean ikerketak duen berebiziko garrantziaren inguruan erakundeek kontzientzia hartzea.

Xede horrekin www.begisare.org web-orrialdea, *Twitter* eta *Facebook* sare-sozialak eta *YouTube*ko gure kataia propioa bezalako baliabideak ez ezik,

interesgarria suerta dakigukeen informazioa jasotzen duten *newsletter*rak bidaltzen ditugu, BEGIRA urtekariaren argitarapena, kolektibo eta erakunde ezberdinekin elkarrizketak eta bilerak izaten ditugu eta abar luze bat.

Egunez-eguneko hedapen- eta sentsibilizazio-lanaz gain, noizbehinka guk geuk edota bestelako erakundeek antolaturiko sentsibilizazio-jardunaldi eta – kanpaina ezberdinetan parte hartzeak, alde batetik, publiko zabalago batetara iristeko aukera ematen digu eta, beste alde batetik, helarazi nahi dugun mezua modu biderkatzaile batetan hedatzea ahalbidetuko duten komunikabideen jarraipenaz baliatzeko aukera ematen digu.

2015 urtean zehazki hurrengo ekintzak antolatu ditugu:

12. “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria medio, ikusmen murrituaren inguruko sentsibilizazioa

2015 urtean zehar, batetik, “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria eta bere esanahia eta, bestetik, ikusmen murriztua ezagutarazteko lanean eskura izan ditugun baliabide guztiak erabiltzen jarraitu dugu. Jarraian, burutu ditugun jarduerak zerrendatzen dira:

Hedapenerako materiala:

- Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria eta ikusmen murriztuaren inguruko bideo didaktiko bat.
- Pasaden 2015eko urriaren 18an Anoeta estadioan aurkeztu eta ikusmen murriztuaren existentziaren inguruan gizartea sentsibilizatzea xede duen iragarki spot bat.
- “Ez bazaitut agurtzen, kontuan izan”, “Laguntza behar badut, kontuan izan”, “Zurekin tupust egiten badut, kontuan izan” bezalako esaldiak dituzten tamaina ezberdinetako kartelak.
- Saltoki, erakunde e.a. luze batetan ezartzeko asmoz “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria eta “Hemen kontuan hartzen dugu” leloa zuten pegatinak.
- Mendi, gimnasio eta bestelako hainbat lekutan ikusmen murriztua duen pertsona bezala identiikatzen laguntzen zuten kamiseta teknikoak.

Publizitatea:

4. Pantaila Digitalak:

- 2015eko abuztuaz gero, Euskadiko zenbait ospitaleetako itxaron-geletan, txandak kudeatzeko pantailetan hain zuzen ere. IKUSI enpresa pribatua eta Osakidetza Osasunaren Euskal Zerbitzuaren eskutik.

- Euskadi osoko Renfe Cercaníaseko auto-salmenta makinetan (2015eko irailaren 7tik 2015eko urriaren 8ra arte). Renfe Cercaníasen eskutik.

- 2015eko urriaren 18an Anoeta estadioan. Fundación Real Sociedad Fundazioaren eskutik.

- 2015eko urriaz gero, Hegalak Kiroldegi Inklusiboan. Hegalak Zabalik Fundazioaren eskutik.

5. Pegatina, kartel, liburuxka eta enarak:

- Osakidetzako ospitale, osasun-zentru eta kontsulta guztietan.

- Iruña eta Nafarroako udalerrri ugarian (2015eko apirilean).

- Renferen ibilbide motzeko trenen euskal sarean (2015eko irailean).

- Marcos Bajoren eskutik, Kataluniako Itzuli Solidarioan.

- Murtziako Unibertsitatean.

- Gipuzkoako Ostalarien elkarteak antolaturiko ferian (2015eko ekainaren 15ean).

- Estatu-mailan, optika-zentru eta oftalmologia-klinika desberdinetan.

- Gipuzkoako saltoki ezberdinetan.

6. Iragarkiak:

- El Diario Vascon, El Diario Vascoren eskutik.

- ProMedios enpresaren eskutik, Donostiako autobus-geltokietan.

4. Aurkezpenak:

- 2015eko apirilaren 21ean, Iruñan eta Asociación Retina Navarrak antolaturiko jardunaldien baitan, bereizgarria Nafarroan aurkeztu egin zen. Aurkezpenaren berri eman zuten hainbat komunikabidek.

- 2015eko abuztuaren 24ean Liendon, Kantabria, igandero ospatzen den merkatuan ezarritako stand batetan.

- 2015eko irailaren 16ean eta Donostian, Gipuzkoako Nagusilan Elkarteak ospatu zuen zentru desberdinen arteko bileran.

- 2015eko urriaren 8an eta Elgoibarren, Ikusmenaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna zela-eta.

- 2015eko azaroaren 21ean eta Madrilan, SEEBVek (Sociedad Española de Especialistas en Baja Visión) ospaturiko Hirugarren Jardunaldien baitan.

Onuradun zuzenak: ikusmen murriztua duten gizon-emakumean (gutxi gora-behera biztanlegoaren %2a). zeharkako onuradunak: gizartea orokorrean.

13.2015eko Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Egunaren Ospaketa

Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Eguna zela-eta, 2015eko irailaren 27an erakargarritasun-puntu ezberdinez osaturiko ekitaldia ospatu zen Donostiako Boulevardean. Egunean bertan hainbat ekintza erakargarri izan genituen, hala nola *Legión 501 – Spanish Garrison*eko kideak izan ditugu geurekin. *Star Wars – Guerra de las Galaxias*en jantzien inguruko nazioarteko erakunde hau saga honen jarraitzaileek osatzen eta zuzentzen dute eta haurrek ez ezik, gazte eta helduek ere hasieran egin zuten desfilearekin baita jende guztiarekin argazkiak ateratzeko azaldu zuten umorearekin ere asko gozatu zuten. Beste behin ere, *A Gritos Band* txaranga izan genuen ekimena musikaz girotzen eta bertan estreinatu zuten *Guerra de las Galaxias*eko *Marcha Imperial*aren bertsioa; *Begiclub*eko gure lagun eskuzabalek beraien artisau-lan solidarioak erakutsiz jendea erakartzeaz gain, ikerkuntzarako fondoak lortzeko balio izan zuen; “Iluntasunaren aurkako borroka” leloa erabiliz egin ziren txapak; “pintxo-pote” solidarioarekin gizarteratze puntua emanez eta, garrantzitsuena, gizartea sentsibilizatzeko asmoarekin, inguraturiko guztiek Erretinosi Pigmentarioa duen persona baten errealitatea gertutik ezagutzeko aukera izan zuten egin genituen froga batzuen bitartez eta, aurtengo berrikuntzetako bat izan zena, *Fundación Real Sociedad Fundazioak* eskainirik, partehartaileen artean Errealeko jokalariek sinaturiko kamiseta eta baloia zozketatzeko ekimena medio jendearen arreta erakartzea erdietsi genuen.

Eguerdia elkartasunaren unea izan zen; hain zuzen ere, 12etan Erretinosi pigmentarioa simulatzen duten 600 kono banatu genituen eta bolondres, senitarteko, lagun eta eragindako guztiok elkarrekin argazki jendetsu bat atera genuen Erretinosi Pigmentarioa pairatzen dugun pertsonok iluntasunetik ateratzeko saiakeran.

2015eko Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Egunak iragarki eta komunikabideei dagokienean, izan duen islada

Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Eguna dela-eta, komunikabideen arreta bereganatu eta, bidenabar, gure gaixotasun, ikusmen urritasun bat izateak dakarren zailtasun eta gure kolektiboarentzat ikerketak duen berebiziko garrantziaren inguruan biztanleria eta Administrazio Publikoa sentsibilizatzeko asmoz urtero esfortzu handia egiten dugu. Aurten hainbat komunikabidek interesa agertu dute eta, batez ere, BioDonostia Ikerketa Institutuak bereziki erretinako distrofiak pairatzen ditugun

pertsoneri emaniko berri paregabeagatik: Alemanian, Tübingenen zehazki, terapia genikoa deritzon ikerketa-alorrean abian jarri diren bi entsegu klinikotan gipuzkoarrek parte hartuko dute, hain zuzen ere. Albistearen berri eman da telebista (*ETB1* eta *ETB2*ko *Gaur Egun* eta *Teleberrian*, hurrenez hurren), egunkari (*El Diario Vasco* eta *Noticias de Gipuzkoa*) eta irratian (*Arrate Irratia*, *Euskadi Irratia* eta *Onda Cero*). Era berean, *El Diario Vascon* iragarkiak ezarri, informaziozko *flyer* eta kartelak egin eta jardunaldia laburbiltzen duen bideo bat burutu zen.

14. Erretinosi Pigmentarioa eta “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria Elgoibarren

Pasaden urriaren 8an, Ikusmenaren Nazioarteko Eguna zela-eta, Elgoibarko herritarrentzat solasaldi bat antolatu zen. Bertan Erretinosi Pigmentarioa, ikusmen murriztua eta “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarriaren inguruan sentsibilizatzeko aukera izan zen.

Ekitaldi honek komunikabideetan izandako islada:

Barren aldizkariak Mertxe Arregi, Erretinosi Pigmentarioaren eraginez ikusmen murriztuak eragindakoa eta Retinosis Gipuzkoa Begisareko bazkidea, elkarrizketatu zuen.

15. BioDonostia burutzen ari den ikerketa-proiektuak izan duen garapenaren inguruko informazio-bilera

Pasaden otsailaren 14ean, Erretinosi Pigmentarioaren inguruan BioDonostia Ikerketa Institutua burutzen ari den ikerketa-proiektuaren arlo molekularren arduraduna den Javier Ruiz Ederra ikerlariak, proiektu honetan parte hartzen dutenei 2014 urtean zehar erdietsi ziren emaitzen berri emateaz gain, 2015 urterako aurreikusi duten lana jakinarazi zien.

16. Erretinosi Pigmentarioaren aldeko kamisetak Behobia-San Sebastián 2015 eta bestelako lasterketa herrikoietan

Urtez-urte, gehiago dira Behobia-San Sebastián lasterketan eta beste hainbat lasterketa herrikoietan Erretinosi Pigmentarioari ikuspena ematen dioten atletak sintomen inprimakia daramaten dibulgazio-kamisetak erabiliz.

17. Autobus-geltoki, *El Diario Vasco* eta web-orrialdean gauzaturiko Erretinosi Pigmentarioari buruzko sentsibilizazio-kanpaina

Abenduaren 7an Erretinosi Pigmentarioaren difusio eta sentsibilizazio kanpaina bat abian jarri genuen. “Erretinosia: Bizitza tunel barrutik ikusita” lelopean Erretinosi Pigmentarioa eta berarekin bizitzea zer den ezagutzera eman nahi dugu. Horretarako Gipuzkoako prentsan eta Donostiako markesinetan kanpainaren irudia jarri dugu QR kodea erdian daramala. Kodeak Retinosis Gipuzkoa Begisareren web-gunean

(www.begisare.org) zintzilikatu den edukietara eramaten du non Erretinosi Pigmentarioak eragindako pertsonen testigantza entzun daiteke, euren egunerokotasuna nola bizi duten kontatzen dute. Gaixotasun latz honen existentzia "argitara ateratzea" lortzen badugu bakarrik erdietsiko dugu bai Erretinosi Pigmentarioa baita itsutasunera garamatzaten beste hainbat erretinako distrofiatan ere ikerkuntzak duen garrantziaz sentsibilizatzea.

Era berean, hurrengo jardunaldi ezberdinetan parte hartu dugu:

18. EHU-UPVren Donostiako kanpusean ospaturiko bolondresen feria:

Pasaden apirilaren 22an, Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco eta Gizaldek antolaturiko "2015 Boluntariotza Azoka" ospatu zen eta, beste 19 elkarterekin batera, gu ere bertan izan ginen. Jardunaldi polita izan zen; izan ere, Erretinosi Pigmentarioa, ikusmen-urritasun larri bat eragiten duen gaixotasun progresibo batekin bizitzeak suposatzen duenaren, ikusmen murriztua zertan datzan eta, azkenik, ikusmen murriztua duten gizon-emakumeen egoeraren ulergarritasuna eta interakzio soziala hobetzea xede duen "Ikusmen Murriztua Du" bereizgarriaren inguruan, kanpuseko ikasle baita irakasleak ere sentsibilizatzeko aukera izan genuen.

19. *Fundación Real Sociedad* Fundazioaren Jardunaldi Solidarioa

Pasaden maiatzaren 31ean, *Fundación Real Sociedad* Fundazioaren Egunean, fundazioak berak eta *Gipuzkoa Solidarioak* antolatutako jardunaldia, parte hartu genuen. *Gipuzkoa Solidarioaren* eskutik, irabazi asmorik gabeko 10 elkartek eta hauen artean Retinosis Gipuzkoa Begisare, egiten dugun lana modu original batean kaleratu ahal izateko aukera izan genuen.

20. Hondarribia Elkarlanean 2015

Beste urte batez, Retinosis Gipuzkoa Begisarek Hondarribia Elkarlanean parte hartu du. Hondarribiko Udalaren Zerbitzu Sozialen Sailak antolatzen duen jardunaldi honek, udaletxeak bere babesa eskaintzen digun elkarteek burutzen dugun lana herritarrei ezagutarazteko aukera eskaintzea du helburu. Gutako bakoitzak ditugun zailtasunen inguruan gizartea sentsibilizatu eta herritarrekin gertuko hartu-emana izateko parada eskaintzen digun ekimena da Hondarribikoa.

21. "Oztoporik Gabe" jardunaldia

Pasaden urriak 16, 17 eta 18an Retinosis Gipuzkoa Begisare Irungo Ficoba Erakustazokan eta autonomia, irisgarritasuna, partehartzea eta bizi-kalitatearen sustapenera bideraturiko "Oztoporik gabe" jardunaldian izan zen. Gure erakustokia goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00etara eta etenik gabe zabalik egon zen. Bertan, batetik, Erretinosi Pigmentarioa, bere sitomak eta erakartzen duen ikusmen-mota

ezagutara emateko asmoz tunel gisako ikusmena simulatzen duten konoak erabili eta, bestetik, berau jasateak sortzen duen problematika baita “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria ere azaltzeko beste aukera bat izan genuen.

22.2015eko abenduaren 16an, gaixotasun arraroen aldeko EITBren Maratoia

Aurten *Euskal Irrati Telebistak* gaixotasun arraroei bere babesa adierazteko xedearekin elkartasun-kanpaina bat sustatu du. Pasaden abenduaren 4tik 16era arte eta ‘Ikara dezagun beldurra – Vamos a asustar el miedo’ lelopean, *EITB* taldea osatzen duten komunikabide guztiak *EITB* Maratoia deritzon jardun dira lanean burubelarri. Kanpaina honek gaixotasun arraroei bere elkartasuna adierazten dion bigarren aldia izan da; lehenengoa 2007 urtean izan zen. Testuinguru honetan, pasaden abenduaren 11ean, *Radio Euskadiko* Boulevard irratsaioan Retinosis Gipuzkoa Begisareko Javier García eta IIS BioDonostiako Adolfo López de Munain Doktorea Erretinosi Pigmentarioaren inguruan mintzatu ziren.

Sentsibilizazio-jarduera guztien onuradunak: gizartea orokorrean.

4.3.- 3. PROGRAMA: ERAGINDAKO ETA SENIDEEI ESKAINIRIKO BABES ETA TREBAKUNTZA

Erretinako distrofiak dituzten gizon-emakume eta berauen senitartekoen bizikalitatea hobetzea helburu duten taldekako babe- eta trebakuntza-jarduerak antolatu ditugu.

Babes psikologikoko taldea:

Beste urte batez, Erretinosi Pigmentarioaren onartze-prozesua errazten laguntzeko, babes psikologikoko hainbat jardunaldiz baliatu gara. Aurtengoan, eragindako eta beraien senideen artean 10 pertsonak hartu zuten parte. Orotara 4 sesio antolatu genitue, hurrengo data eta gaiekin:

- 2015eko urtarrilaren 24ean, “Behar eta baliabideen aurrean, sentsibilizazioa eta jarrera aldaketa”.
- 2015eko otsailaren 21ean, “Geure emozioen identifikazio eta kudeaketara hurbiltzen”.
- 2015eko martxoaren 21ean, “Geure pentsamenduak nola kudeatu eta hauek gure ongizatean duten eragina”.
- 2015eko apirilaren 25ean, “Zer esan nahi du eta nola kudeatzen dugu ‘Ikusmen Murriztua Dut’ bereizgarria” eta “Nor gara eta nora goaz”.

Onuradunak: erretinako distrofiak dituzten gizon-emakumeak eta berauen senideak.

Automakilaje ikastaroa:

Maiatzean, ikusmen-urritasunak dituzten pertsonentzat bereziki prestatuako 8 orduko automakilaje ikastaro bat antolatu genuen. Bertan, pertsona bakoitzak dituen beharrei erantzun zitzaien, beti ere norberaren aurpegia eta berezitasunak aintzat hartu eta baloratu.

Horrela, ispiluan zertan begiratu behar izanik gabe, eder jartzeko automakilajeko hainbat teknika erraz ikasi genituen. Ispiluan geure irudia ikusteko beharrik izan gabe, esate baterako, atzamarrarekin errimela eta itzalak nola margotu eta marra begia itxirik nola egin erakustez gain, emaitza bikaina erdiesteko oinarria eta koloretea nola erabili irakatsi ziguten.

Onuradunak: Retinosis Gipuzkoa Begisarekoak diren eta erretinako distrofiak dituzten gizon-emakumeak.

4.4.- 4. PROGRAMA: KONTSEILU GENETIKOA, AHOLKULARITZA ETA HEZIKETA

BioDonostia Institutua Erretinosi Pigmentarioaren inguruan burutzen ari den ikerketa-proiektuari ekonomia eta kudeaketa aldetik eskainiriko babesa:

2015 urtean zehar gauzaturiko lanari esker, guztira Erretinosi Pigmentarioarekin loturiko 3 generen 6 aldaera ezberdin (horietako bat berria zen) dituzten eta gaitzaren eramaile diren 14 pertsona identifikatu dituzte. Horietako 4 eragindako, beren adinagatik, oraindik inolako sintomarik adierazten ez duten haur eta gazteak direla aipatzekoa da eta honek, halaber, adinean aurrera egin ahala gaitzaren garapena gertutik jarraitzeko aukera eskainiko du. Bestalde, Tübingeneko Ospitale Unibertsitarioak (Alemania) aurrera daraman entsegu kliniko baten lehenengo faseetan erretinako distrofiak dituzten 6 eragindako gipuzkoarren partehartzea urte honen beste mugarrietako bat da. Hain zuzen ere, PDE6A eta CNGA3 geneetan mutazioak dituzten Erretinosi Pigmentarioak eragindako pertsonen zuzenduriko entsegu kliniko hau, terapia genikoa deritzon ikerketa-alarrean, Europar burutzen den lehenengoetako bat da.

Onuradun zuzenak: Gipuzkoan Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere familia-muina (jaraunspenezko gaixotasuna izanik bikote eta ondorengoak). Zeharka bada ere proiektua onuragarria da gizarte osoarentzat, izan ere, diagnostiko genetiko zuzen batek etorkizuneko belaunaldietatik gaixotasuna eta beronen eramaileak erazteak erakar lezake. Gainera, ikerketaren bidetik eragindakoentzat sendabide bat erdiesten baldin bada gizarte osoa onuratuko da.

Erretinosi Pigmentarioarekin nolabaiteko lotura zuzen edota zeharkakoa duten jardunaldietan izan gara:

- Donostia Ospitalean eta 2015eko urriaren 28an, Osasunaren inguruan diharduten Elkarten jardunaldia.
- Donostia Ospitalean eta 2015eko azaroaren 3an, segurtasun klinikoaren alorrean eragindakoaren partehartzearen inguruko jardunaldia.

- 2015eko azaroaren 5 eta 6an ospaturiko CENTAC Irisgarritasunaren Teknologia buruzko Seigarren Kongresua.
- 2015eko azaroaren 20tik 22ra arte SEEBVak (*Sociedad de Especialistas en Baja Visión*) ospaturiko Hirugaren Jardunaldiak.

Onuradunak: erretinako distrofiak dituzten gizon-emakumeak eta berauen senitartekoak.

Gure gaitzaren inguruko zalantzak argitu, iritziak trukatu, aholkuak jaso, eta abar egiteko asmoz, Aholku Batzordearekin hartu-emanak izan ditugu.

Onuradunak: alde batetik, bazkide izan edo ez Erretinosi Pigmentarioak eragindako guztiak baita beraien familia eta lagun-taldea ere eta, beste alde batetik, Retinosis Gipuzkoa Begisare topagune gisa erabil dezaketen Erretinosi Pigmentarioaren alor ezberdinetako adituak. Zeharka gizartea orokorrean, izan ere, Retinosis Gipuzkoa Begisare bezalako elkarteak berauek informa eta aholka ditzaketen adituez inguratuz gero, gaixotasunaren eramailea izan daitekeen edozeini aholku emateko egoera hobea batean aurkituko dira eta, beraz, hauen ondorengoak gaitza nozi edota eraman ez dezaten beharrezkoak diren neurriak hartu ahalko dituzte.

4.5.- 5. PROGRAMA: GIZA-KULTURA ETA KIROL AISIALDIA

Giza-kultura eta kirol aisialdiko jardueren antolaketa medio, eragindako pertsona eta berauen gertuenekoei taldekako arreta.

Onuradunak: Retinosis Gipuzkoa Begisareko bazkideak baita beraien senide eta ingurukoak ere.

Jarduera eta partehartzaileak:

Mirandaolako Burdinola eta 50. Hamarkadako Ikasgela:

Joan den apirilaren 18an Retinosis Gipuzkoa Begisareko 23 lagun elkartu ginen Legazpi herria ez ezik Mirandaolako burdinola zoragarria ere ezagutzeko.

Lehendabizi Mirandaolara abiatu ginen eta bertan burdin haranak eskeintzen dituen bista paregabeaz gozatzeko aukera izan genuen. Eguraldi hobe zina izan genuen lagun eta horrek lekua bere osotasun ederrean ezagutzera ahalbidetu zuen. Bir gidari sutuak hainbat azalpen eman ondoren, burdinolan sartu ginen. Bertan, XVI. mendeko jantziekin olagizonek makineria martxan jarri zuten, urak hauspo erraldoiak mugitzen zituen eta mailuak gori-gori zegoen burdina lantzen zuen. Burdinolaren ondoan Mirandaolako Kapera kokatzen da, Gurutze Santuaren mirariaren oroitzapenaren leku. Bisita amaitzeko, olagizonek olapintxoak egin zuten burdinolako txingarretan.

Ondoren, herriko elizara zuzendu ginen eta Birrek Mirandaolako gurutzea erakutsi zigun, Mirandaolako kaperan hasitako azalpenak amaituz.

Eta jarraian bazkaltzera joan ginen, guztiz beharrezkoa genuen indarrak hartzeko, gero gure ezagupenak eskolan erakutsi behar genituen eta. Bai, bai, arratsaldean partehartzaile guztiak garai bateko praile eskolako gela bateko pupitreetan eseri ginen eta Bir izan zen berriro ere bere azalpenen bitartez garai hartako neska-mutilek (bereizirik noski) klasean eta jolas-orduan egiten zituzten hainbat joku, ekintza, zigor, eta abar kontatzen jardun zena. Dena oso arin, entretenigarri eta dibertigarria izan zen eta oso oso bitxia.

Trenaren Museoa eta Loiolako Santutegira bisitaldia:

Pasaden ekainaren 13an, Retinosis Gipuzkoa Begisareko 17 bazkide eta lagunek Trenaren Museoa eta Loiolako Santutegia, Azpeitian, bisitatu genituen.

Gure gidari Enekoren eskutik, iraultza industrialak ekarri zuten tren zaharretatik hasi eta Bilboko Metroan erabiltzen diren unitate modernoetaraino, Euskadiko trenen historia zehazki ezagutu ahal izan genuen. Antzinako motore elektriko bat martxan jarri zuten eta poleaz, uhalez eta enbarratuz 16 makina funtzionarazten ikusi genuen. Azkenik, denboran atzera egiteko aukera izan genuen, antzinako lokomotoreak tiratutako tren zaharretan bidaiatuz, Urolaren haraneko paisaia berdeetatik Azpeititik Lasarako bidaia eginez.

Bazkalostean eta, oraingoan, Tania gidari genuela, Loiolako Santutegia bisitatu genuen. Bere eskutik ertaroko Dorretxea erakutsi zigun, "Casa Natale" deritzon eraikin honetan 1491 urtean Iñigo de Loyola jaio zen, gerora San Ignacio izango zena, eta kristau bihurtu zen 1521ean. Era berean, 1738an eraikitako basilikan izan ginen. Bisita guztian zehar estatua, pieza, harri, eta abar eskuekin ikutzeko aukera izan genuen. Beste behin, gertu izanagatik kasu askotan gertatu bezala askok ezagutzen ez genuen harribitxietako bat deskubritu genuen. Eta hau konpainia eta aldarte onarekin konbinatuz gero, pasa genuena bezalako egun borobilaz gozatzeko aukera izaten da.

Gabonak Paloma San Basilio eta *Los Chicos del Coroko* partaideekin:

Aurtengoan ere, urteari amaiera emateko Retinosis Gipuzkoa Begisarek ekitaldi solidario batetan parte hartzea erabaki du. Pasaden abenduaren 11ean, elkarteko 54 bazkide eta lagunek *Super Amarak* antolatutako "Gabonetako Festibal Solidarioan" izan ginen. Ekitaldi honetarako sarreren salmenta medio bilduriko diruaren %100a GAUTENA Autismoaren Gipuzkoako Elkartera bideratuko da.

Paloma San Basilio eta *Los Chicos del Coroko* kideek aurkezturiko "Voces para el alma" ikuskizun paregabeaz gozatu genuen. Bertan, mundu guztian zehar ezagutzen diren doinuak abesti garaikideenekin uztartu zituzten.

Nola ez, kontzertura joan aurretik, urte berriagatik topa egin genuen baita Erretinosis Pigmentarioa pairatzen dugunok gure gaixotasunaren inguruan ikerketaren alorretik berri onak izan ditzagun ere.

5.- MEMORIA EKONOMIKOA

EGINDAKO GASTUA PROGRAMATAN ELKARTURIK

<u>2015eko GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>72.983,18</u>
ELKARTE MUGIMENDUA	12.956,30
PROFESIONAL ASKEEN ZERBITZUAK	423,50
ERANTZUNKIZUN ZIBILEKO ASEGURUAK	620,62
BANKU ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK	141,12
HORNIDURAK ETA MANTENIMENDUA	1.656,35
BESTE ZERBITZU BATZUK	63,00
ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAK	2.535,71
BESTE GASTU TXIKIAK	75,00
POSTA ETA MEZULARITZA	1.374,25
BULEGOKO MATERIALA	4.202,96
DESPLAZAMENDUAK	1.261,92
KOBRAEZINEN GALERAK	597,98
AMORTIZAZIOA	3,89
KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA	30.943,00
HEDAPENA/PROPAGANDA	9.868,81
WEB ORRIALDEA	561,44
BEGIRA ALDIZKARIA	3.972,16
IKUSMEN MURRIZTUA DUT BEREIZGARRIA	15.375,75
HITZALDIEN ANTOLAKETA	1.164,84
LAGUNTZA ETA HEZIKETA SAIOAK	1.021,33
LAGUNTZA PSIKOLOGIKORAKO LANTALDEA	100,00
AUTOMAKILLAJE SAIOA	400,00
COACHING TAILERRA	521,33
GENETIKA, AHOLKULARITZA ETA HEZIKETA	22.958,75
BIODONOSTIA	20.000,00
HITZALDIETARA JOATEA ETA BESTEAK	821,95
AHOLKULARITZA-BATZORDEA	2.136,80
AISIALDIA	5.103,80
GIZA KULTURA ETA KIROL AISIALDIA	5.103,80

DIRU-SARRERAK PROGRAMATAN ELKARTURIK

<u>2015eko DIRU-SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>72954,78</u>
ELKARTE MUGIMENDUA	12956,30
Erakunde Publikoak	6500
Erakunde Pribatuak	4956,30
Kideak	1500
KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA	30914,6
Erakunde Publikoak	15483,22
Erakunde Pribatuak	13521,95
IMD ekarpenak eta dohaintzak	1151
Kideak	629,65
Finantza diru-sarrerak	128,78
LAGUNTZA ETA HEZIKETA SAIOAK	1021,33
Erakunde Publikoak	901,33
Kideen Ekarpenak	120
KONTSEILU GENETIKOA, AHOLKULARITZA ETA HEZIKETA	22958,75
Erakunde Publikoak	315
Erakunde Pribatuak	1983,75
Begiclub artisau lanen salmenta	3250
Dohaintzak	5193,65
Gabonetako Loteriaren Salmenta	7790
Kideen Ekarpenak	660
Kideak	3766,35
GIZA-KULTURA ETA KIROL AISIALDIA	5103,8
Erakunde Publikoak	2605,8
Kideen Ekarpenak	2498

6.- EMAITZEN EBALUAKETA OROKORRA

Helburuen erdiespena, onuradunen asetze eta kalitate-mailari so eginez gero, 2015 urtean zehar Retinosis Gipuzkoa Begisarek buruturiko jardueren ebaluaketa egiterako orduan, urtea arrakastatsua izan dela kontsidera dezakegu. Izan ere, urte hasieran onarturiko Egintza-Planean aurreikusi ziren ekimenetako asko aurrera eraman ahal izan ditugu eta, era berean, berauetan izandako partehartze- baita asetze-maila ere altuak izan dira.

Elkarte Mugimenduari dagokionean, kudeaketa berak dakartzan ohiko eginbeharrez gain, Erretinosi Pigmentarioak zein bestelako ikusmen-gaixotasunek erakarritako ikusmen-urritasun larria duten pertsonen babes eta aholku eman diegu, bestelako elkarteekin elkarlanean proiektu amankomunak abian jarri ditugu, ekitaldi solidario ezberdinetan parte hartu dugu, elkartearen kudeaketaren hobetzea xede izanik trebakuntza- eta heziketa-ikastaro ugaritan izan gara eta, azkenik, Donostia Ospitalean erretinako distrofiak dituzten pertsonen arreta eskaintzeko bigarren gune bat erdietsi dugu.

Komunikazioa eta Hedapena programari dagokionez, Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Eguna eta Ikusmenaren Nazioarteko Eguna medio antolatutako dibulgaziozko-kanpainen bitartez gizartea sentsibilizatzeko genuen helburua erdietsi dugu, izan ere, ekitaldietan partaidetza-maila altua izateaz gain, bai Gipuzkoa baita Euskadin ere hedapen nagusienekoak diren komunikabideetan islada izan du gure ekimenak. Era berean, Erretinosi Pigmentarioaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina bat burutu dugu; hain zuzen ere, autobus-geltoki eta *El Diario Vascon* ezarritako QR kodigoei esker gaixotasunarekin bizitzeak zer suposatzen duen ulertzen laguntzen duten lekukotza eta simulazioak ikus daitezke. Bestalde, "Ikusmen Murriztua Duta" bereizgarriaren proiektuari bultzada handia eman diogu eskura izan ditugun baliabideekin bere ezagutza zabalduz ez soilik Gipuzkoan, baizik eta Estatu osoan zehar. Bestalde, hitzaldi, web-orrialde eta sare-sozialen eguneratze, BEGIRA buletinaren argitarapena, eta abarrekin eman diren azken aurrerapausuen inguruan gizartea oro har eta bereziki eragindakoak informatu ditugu.

Gaixoei babes eskaini eta neurri batean trebatzeko gure konpromezuari dagokionean, batetik, ikusmen-urritasunak dituzten pertsonak tratatzen aditua den psikologo baten bitartez bazkideei babes psikologikoa eskaintzen jarraitu dugu eta, bestetik, Erretinosi Pigmentarioak eragindako baita bere gertukoenei ere zuzenduriko ikastaro eta tailerrak antolatu ditugu (*smartphone* tailerra eta Erretinosi Pigmentarioaren inguruko sentsibilizazio- eta gerturatze-tailerra, hurrenez hurren). Guzti hauek nahiz partaidetza nahiz trataturiko gaiei dagokienean asetze-maila altuak izan zituzten.

Kontseilu Genetiko, Aholkularitza eta Heziketaren alorrean, ordea, gure Lurralde Historikoan maiztasun handienaz ematen diren geneak zeintzuk diren zehaztu eta berauekin ikertzen hasteko helburuarekin BioDonostia Ikerketa Institutuak burutzen duen Erretinosi Pigmentarioaren inguruko Proiektua ekonomikoki eta gure lanarekin bultzatzen jarraitu dugu. Diru-iturriak

erdiestearren arrakasta handia erdietsi duten ekimen berriak abian jarri ditugu eta, horiei esker, proiektua bultzatzeko asmoz egin dugu ekarpena benetan esanguratsua izan da.

Erretinosi Pigmentarioaren inguruko azken aurkikuntzen inguruan informaturik egon baita hartu-eman berriak egiteko ere, bestelako elkarteek antolatu zituzten hitzaldi eta ekitaldietan parte hartu dugu. Era berean, gure gaitzari buruzko gaiak jorratzeko asmoz bere babesa eskaintzen digun Aholku Batzorde zientifiko-medikuarekin bilera ugari izan ditugu.

Giza-Kultura eta Kirol Aisialdiari dagokionean, azkenik, antolatu ditugun jardueren bitartez bai gaixo baita beraien senideek ere, gaixotasun eta bere ondorioen inguruan lasai hitz egiteko giro atsegina sortzeko aukera izan dugu. Erdietsi ditugun partaidetza- eta asetze-mailak oso altuak izan dira.

7.- RETINOSIS GIPUZKOA BEGISAREK ESKURA DITUEN BALIABIDE PERTSONALAK

Retinosis Gipuzkoa Begisare Elkarteak kontrataturiko langilerik ez izan arren, neurri handiago edo txikiago batean, elkartearen eguneroko bizitzan eta proiektuen gauzapenean inolako ordainsaririk gabe lan egiten eta laguntzen duten 80 bolondres ditu.

Elkarteak dituen proiektuen kudeatzaile eta sustatzaile nagusiak jarraian aipatzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideak dira:

- Itziar González Lorenzo; Presidentea.
- Markel Etxabeguren Leanizbarrutia; Presidenteordea.
- Amaia Gereñu Muxika; Idazkaria.
- Hilario Colina López; Diruzaina.
- Ramón Urra Erauskin; Bokala.
- Ana Aguirrezabala Esnal; Bokala.
- Ana Oyarbide Esnaola; Bokala.
- Javier García Sánchez; Bokala.

Burutzen dituzten funtzioen trukean kide hauei ez zaie inolako ordainsaririk ematen, izan ere, Euskadiko Elkartearen, ekainaren 22ko, 7/2007 Legearen 19. artikuluan xedatutakoarekin bat, Elkartearen Estatutu Sozialetan ez da horrelako aukerarik aurreikusten.

8.- RETINOSIS GIPUZKOA BEGISAREK ESKURA DITUEN BALIABIDE MATERIALAK

Elkarteak bere jarduerekin betetzeko eskura dituen baliabide materialak hurrengo hauek dira:

- ONCEk utzitako bulegoa.
- Ikusmen murriztua duten eta/edo itsuak diren pertsonentzat egokituriko ordenagailuak.
- *Smartphone* irisgarria.

- Telelupa (ikusmen murrizturako laguntza).
- Braille impresora.
- *Perkins* (braillen idazteko makina).